



Kazetarien Euskal Elkargo eta Elkartek informaziorako eskubidea bermatzeko eskatzen dute

Bilbo, 2020-05-17. KEEK eta EKEk informazio eskubidearen aldeko beraien jarrera erakutsi nahi dute, Konstituzioak ere horrela jasotzen duelako. Gainera autoritate eta instituzioei akreditatutako kazetariei lana erraztu eta trabarik ez jartzeko exijitzen diete; baita alarma egoeran ere.

Aste honetan, EAeko kazetarien bi erakunde nagusiek ikus-entzunezko materiala jaso duten non Hala Bedi eta Argiako kazetarien lana ekiditen saiatzen ziren Ertzaintza, lehen kasuan, eta Gasteizko Udaltzaingoa, bigarrenengan. Bi komunikabideek babeska eskatu diete erakundeei. Kazetariak mehatxuak jaso dituzte: neurri legalak hartzea eta beraien lan-tresnak bahitzea. Elkargoak zein Elkartek prentsa askatasunerako eta hedabide eta kazetarien aske informatzeko eskubidearen aurkako ekintza hauek gogor salatzen dituzte.

KEEK eta EKEk gogoratu nahi dute, Espainiako Gobernuaren arabera, alarma egoeran ere kazetariak askatasunez egin dezaketela lana eta mugarik gabe mugitu daitezkeela, lanak horrela eskatzen badie. Horrela, beraien lana burutzea, informatzeko eskubidea eta informatua izateko eskubidea bermatzeko.

Era berean, Elkargoak zein Elkartek agintarien zein Estatuaren Segurtasun Indarren komunikazio eskubideen aurkako edozein ekintza gaitzesten dutela adierazi nahi dute, beti ere hedabideen zein informazioen aurretiko zentzura helburu dutenean. Eta erakundeei exijitzen diete kazetaritzaren funtzio publikoa berma dezatela egiazko, kontrastatutako eta iturri oneko datuekin gizartea informatua izateko.